

Bizkaiko Batzar Nagusietan ARRANKUDIAGA-ZOLLO izena onartu da bi herriek osatzen duten udalerrarentzat

Prozesu luze baten ostean, atzo, urtarrilak 19, Gernikan burutu zen Bizkaiko Batzar Nagusien osoko bilkuran ARRANKUDIAGA-ZOLLO izena onartu zen bi herriek osatzen duten udalerrarentzat.

AURREKARIAK

1968 urtera arte Arrankudiaga eta Zollo bi udalherri guztiz independente izan ziren, bakoitza bere udal propioarekin. Urte horretan Arrankudiagan, Arakaldon eta Zollon udal-idazkari bera zegoenez, hiru udaletako kudeaketa administratiboa era bateratuan Arrankudiagako udaletik egitea proposatu zen. Proposamena onartu egin zuten Arrankudiaga eta Zolloko udalbatzek eta ezezkoa eman zuen Arakaldokoak.

Kudeaketa administratibo bateratua garatzeko Fusio Administratiborako Estatutua onartu zen Arrankudiaga eta Zolloko udalbatzen aldetik. Herri bakoitzak bere nortasuna mantentzen zuen eta bakoitzaren jabegoko ondasunak (herri basoak, eraikinak eta abar) kudeatzeko Auzotarren Juntak eratu ziren, baina entitate municipal bakarra sortu zen, hau da, bi herri eta udalherri bakarra. Anexioen garaiak ziren, aginte politiko-administratibotik bultzatuta, baina kasuan honetan fusio administratiboa burutu zen, eta ez anexioa.

ERABAKI ANTIDEMOKRATIKOA ETA DISKRIMINATZAILEA

Erabaki formala, Arrankudiaga eta Zolloko udalbatzek hartu zuten, herritarren inolako parte hartzerik gabe. Diktadura frankistaren garaiak ziren, alkate eta zinegotziak ez ziren hauteskunde bidez aukeratzen eta goitik beherako egitura politikoaren ordezkariak ziren eta ez herritarrenak. Erabakiak inposatu egiten ziren era guztiz antidemokratikoan.

Erabakiaren beste akats larria diskriminazioarena da. Entitate municipal berriari bi herrien izena jarri beharrean, Arrankudiako udala jarri zitzaion, guztiz diskriminatzailea eta baztertzaila bilakatuz Zollorentzat.

ZOLLOKO HERRITARREN ASANBLEAREN PROPOSAMENA

2019ko udazkenean Zolloko herritarren asanblean gaia lantzen da eta fusioa zer garaitan eta nola gauzatu zen ikusita justuena elkarketa indargabetu eta herri bakoitzak barriro bere udala bereganatzea izango litzatekela adierazten da. Baina, indarrean dauden lege eta arauen eragozpen gaindiezinen aurrean, udalerraren izenak suposatzen zuen diskriminazioa behintzak lehenbailehen zuzentzea eskatzen da aho batez: **ARRANKUDIAGAKO UDALA izenaren ordeztu, ARRANKUDIAGA ETA ZOLLOKO UDALA modu ofizialean onartzea.**

ONDORENGO IBILBIDEA

Asanblearen eskaera Zolloko Juntak udalera bideratu ondoren, 2019ko abenduaren 30eko osoko bilkuran aho batez onartu eta Bizkaiko Foru Aldundira bidali zen.

2021eko otsailaren 15ean udalerraren izen aldaketa Batzar Nagusietan eztabaidatu eta bozkatu behar zen egunean bertan behera gelditu zen Foru Aldundiko Administrazio Publiko eta Erakunde Harremanetarako Sailak **Arrankudaga eta Zollo** izenari jarritako eragozpenak zirela medio.

2021eko apirilaren 25e Zolloko asanblean berriro landu zen gaia eta gehiengo osoak **Arrankudiaga eta Zollo** izenaren alde egin zuen berriro ere. Aukera horren aldeko ahaleginak

egitea erabaki zen eta, aukera hori ezinezkoa izanez gero, bigarren aukera **Arrankudiaga-Zollo** izatea onartu zen. Ondorengo hilabeteetan, hainbat batzar eta ahalegin egin ondoren, ez zen lortu blokeo egoera gaitzertzerik eta Foru Aldundia espedientearen artxibatu eta prozedura osoa bertan behera uzteko prest zegoela ikusita, **Arrankudiaga-Zollo** izena onartu eta proposamen berria Foru Aldundira bideratzea eskatu zion Zolloko Juntak udalari.

2021eko uztailaren 2ko udaleko osoko bilkuran proposamen berria aho batez onartu eta Foru Aldundiari bidaltzen zaio. Eta, azkenik, atzoko Bizkaiko Batzar Nagusien osoko bilkuran **ARRANKUDIAGA-ZOLLO** izena onartu zen bi herriek osatzen duten udalerriarentzat.

Arrankudiaga-Zollo, 2022ko urtarrilak 20